2016-IX-16
Número **500.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

## EDITORIALA

### Eusko Jaurlaritza: demokrazia gure alde dago

Eusko Jaurlaritzak gogor erreakzionatu du euskal gehiengo sindikalen aurka. Estatutik edo bere ingurumarietatik datozen eraso antidemokratikoei Urkulluren Gobernuaren lankidetza politikoa gehitzen zaio orain. Orain, aurrerapauso berria eman eta Confebask patronala, UGT eta CCOOekin negoziazio kolektiboaren esparruan aurrekaririk ez duen ofentsiba antidemokratikoa adostu du.

Eusko Jaurlaritza eta patronalaren arteko sinbiosia errealitate da aspaldidanik, eta honek interesen fusioa ekarri du –eredu ekonomiko eta sozial berdina dute, prekarietatean sakontzea eta aberastasunaren banaketa bidegabean oinarritua–; honez gero ez dira bereizten Urkulluren sailburu eta Confebaskeko buruzagien adierazpenak. Arantza Tapiak dioenean euskal langileok bestelako ordezkaritza sindikal bat izan beharko luketela –eta horretarako lan egingo duela– argi eta garbi uzten du gobernu honek gehiengoak errespetatzen dituela hauek gustuko dituenean, bere murrizketak txalotzen dizkiotenean eta patronalaren inposizioen aurrean otzanak direnean.

Eusko Jaurlaritzak Confebask, UGT eta CCOOekin akordioa uztailaren amaieran irudikatu nahi izan zuen abuztuko oporraldiak itundutakoaren eragin politikoa eta larritasuna disolbatuko zutelakoan, horri lagundu behar zion hauteskundeen iragarpenak (justu ondoren egindakoa). Ez da horrela izango. Egin dutena oso larria da eta ezin da pasatzen utzi. Orain hasi eta behar beste luzatuko dugu erantzuna, erasoaren tamainan. Ba ote dago gehiengo demokratikoak mespretxatu eta eraginik gabe uztea baino ezer larriagorik?

Arduratuko gara Lehendakariaren ekimen antidemokratiko honek agenda politikoa bete dezan, ez soilik lan mundukoa. Urkullu lehendakariak aukeratu ditu akordioaren unea, edukiak eta bere aliatuak. Erantzun egiten dugu, eta erantzuten jarraituko dugu. Eusko Jaurlaritzak ordua eta joko-zelaia jarri ditu, eta guk azkeneraino jokatuko dugu partidua, Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko gure konpromisoa berrestetik abiatuta.




**Eusko Jaurlaritzak, Confebaskek, CCOOk eta UGTk lortutako akordioak negoziazio kolektiboaren indibidualizazioa bilatzen du**

# SINDIKALGINTZAREN OINARRIARI ERASO BAT DA

ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariek irailaren 20an Gasteizen antolatu duten mobilizazioaren aurkezpena egin zuten irailaren 12an. (Aurreko Astekarian gai honen inguruko informazio gehiago aurkitu dezakezu). Agerraldian sindikatuko idazkari nagusiak, Adolfo Muñozek, kalera irten eta langileen gehiengo demokratikoak defendatzearen garrantzia nabarmendu zuen. "Uztailaren 22an Elkarrizketa Sozialaren Mahaian Eusko Jaurlaritzak, Confebakek, CCOOk eta UGTk negoziazio kolektiboaren inguruan sinatu zuten akordioa oso larria da. Larria da onartezina delako gobernu batek gehiengo demokratikoak ez errespetatzea. Eta hauteskundez hauteskunde argi geratzen da zeintzuk diren langileek nahi dituzten gehiengo demokratikoak. Baina larria da ere bultzatzen duen negoziazio kolektiboaren ereduari dagokionez".

"Eragin mugatuko akordioak bultzatzearen estrategiak helburu argia du: lan harremanen indibidualizazioa. Akordio hauek langileak babesik gabe uzten dituzte patronalaren xantaien aurrean. Sindikatuak, hain justu, kontrako helburuarekin sortu ziren: enpresaren aurrean negoziazioa kolektibizatzeko, enpresa eta sektoreetako lan baldintzak homogeneoak izan zitezen, inolako pribilegio eta bazterketarik gabe".

ELAko idazkari nagusiak Eusko Jaurlaritzari boteretsuen interesen alde eta ahulenen kontra egotea leporatu zion. "Eusko Jaurlaritza eta patronala eskutik doaz. Bat datoz euren interesetan: soldaten jaitsiera eta lan prekarietatea handitzea bilatzen dute. Badira Eusko Jaurlaritzan patronalaren ordezkariak balira hitz egiten duten lagunak. Urkullu lehendakariak argi eta garbi erakutsi du zeintzuk diren bere aliatuak. Indartsuenarekin (patronalarekin) bat egitea erabaki du, ahulenari (eta hori beti langilea da) bizkar emanda".

Adolfo Muñozek ere hitz gogorrak izan zituen akordioari babesa eman dioten CCOO eta UGT sindikatuen aurka. "Bi sindikatu hauek patronalaren interesetara makurtu dira beste behin. Patronalak badu helburu bat, azken lan erreformak aplikatzea. Baina hemen helburu hori lortzeko arazo handi bat dute: ELA eta LAB sindikatuek duten erabateko gehiengoa. Horregatik, Jaurlaritzaren oniritziarekin, langileek ematen ez dieten garrantzia eta protagonismoa ematen diote CCOO eta UGTri, euren jarduna behar dutelako soldatak jaisteko daukaten estrategiari zilegitasuna emateko".

Hau guztiagatik kalera ateratzeko deia luzatu zuen. "Gure helburua Euskal Herriko langile klasearen lan baldintzak hobetzearen alde borrokatzea da. Horretarako langileen gehiengo zabal baten babesa dugu. Hauteskundez hauteskunde irailaren 20ko manifestazioa deitzen dugun sindikatuok lortzen dugun babesa horren lekuko da".

*La apuesta por los convenios de eficacia limitada es una cesión inadmisible que, además, no trae ninguna contrapartida beneficiosa para las y los trabajadores*



**Ezker eskuin, Joseba Villarreal, ELAko negoziazio kolektiboko arduraduna, Adolfo Muñoz, ELAko idazkari nagusia, Ainhoa Etxaide, LABeko idazkari nagusia, eta Javi Garnika, LABeko idazkari nagusiaren-albokoa.**

## EL GOBIERNO VASCO PUBLICA EN EL BOLETÍN OFICIAL EL CONVENIO EXTRAESTATUTARIO DEL METAL DE ARABA

La ofensiva antidemocrática impulsada por el Gobierno Vasco continúa. El último ejemplo lo tuvimos el 14 de septiembre: ese mismo día el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Araba publicó el acuerdo extraestatutario del metal, acordado con el 30% de la representación. En la publicación se informa de que el convenio está acordado por el SEA, CCOO y UGT, y que ELA y LAB no lo firmaron. Ninguna mención a la representación que ostentamos cada sindicato.

Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, considera que la decisión política del Gobierno Vasco de trasladar a la sociedad que las elecciones sindicales y sus resultados no deben de ser tomados en cuenta es profundamente antidemocrática. "Nos encontramos ante un retroceso de más de 30 años en el intento de que las relaciones laborales se produzcan en un contexto democrático, donde se reconozcan las mayorías y las voluntades expresadas por los y las trabajadoras".

"Resultaría del todo escandaloso –añade– que un gobierno publicase en el boletín oficial, una ley apoyada únicamente por el 30% de los integrantes del parlamento. Es lo que acaba de ocurrir en el metal de Araba".

En este contexto, Villarreal reitera la apuesta de ELA por una sociedad basada en principios democráticos. "Si no teníamos suficientes motivos ahora tenemos uno más para salir a la calle. El día 20 defendemos en las calles de Gasteiz estos principios con más fuerza que nunca".

# PROPUESTAS PARA LA NUEVA LEGISLATURA

**En el anterior Astekaria informábamos de que ELA había mandado a los partidos políticos que concurrirán el 25 de septiembre a las elecciones al Parlamento Vasco un documento en el que se recogían diversos compromisos concretos a asumir en caso de llegar al Gobierno Vasco. A continuación recogemos esos compromisos. (El documento íntegro enviado a los partidos políticos está disponible en nuestra página web: www.ela.eus)**




## COMPROMISOS CONCRETOS PARA LA ACCION DE GOBIERNO

### 1. Política presupuestaria propia, social y con perspectiva de género. Auditoría de la deuda

Compromiso de llevar una política presupuestaria propia, no supeditada a las decisiones adoptadas en Madrid. Esto conlleva elaborar sus presupuestos sin aceptar los límites del déficit público que establece Madrid para las Comunidades Autónomas, ya que hay que primar la cobertura de las necesidades sociales.

Cuestionar el pago de la deuda pública como prioridad. Por ello se debe impulsar y facilitar la elaboración de una auditoría de la deuda pública y comprometerse a no pagar la parte que se declare ilegítima. La auditoría de la deuda debe ser un proceso social, en el que el gobierno colabore dando la información necesaria.

Eliminar el diferencial de gasto público destinado a sanidad y educación respecto a la media de la Unión Europea. Esto supone aumentar las dotaciones en sanidad en un 40% y en un 30% las inversiones en Educación, hasta alcanzar el 7,2 y el 5% del PIB, respectivamente.

Diseñar con perspectiva de género todas las normas (incluidos los presupuestos) que emanan de la acción del Gobierno.

### 2. Impulsar el cambio en la politica fiscal

La participación en el Consejo Vasco de Finanzas y en el Órgano de Coordinación Tributaria debe utilizarse para aprobar medidas fiscales justas y progresivas, que coloquen la presión fiscal vasca en la media europea:

- Dar marcha atrás en las rebajas de impuestos aprobadas en años anteriores a las rentas altas y al capital (IRPF, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre Patrimonio).
- Aprobar los cambios fiscales recogidos en las propuestas de ELA sobre esta materia.
- Exigir que se luche contra el fraude fiscal, inspeccionando anualmente al menos al 25% de las rentas no salariales.

Asimismo, se deben dar todos los cambios necesarios para que los impuestos (tanto los concertados como los no concertados) se decidan en el Parlamento Vasco.

### 3. Prestaciones sociales y establecimiento legal de derechos sociales

En relación a las prestaciones sociales:

- Renuncia expresa a adoptar cualquier medida que suponga un recorte de las prestaciones sociales.
- Dar marcha atrás de manera inmediata en los recortes aprobados en las prestaciones, que afectan a la cuantía de las mismas y han dejado a miles de personas sin derecho a la RGI, AES, etc., debido al endurecimiento de los requisitos de acceso.
- Establecimiento de las AES como derecho.

Establecimiento por ley del reconocimiento de los siguientes derechos:

- Cobertura de todas las situaciones de dependencia, que serán atendidas por un servicio público y gratuito de calidad.
- Cobertura en la red pública de todas las plazas de educación que se demanden en la misma para el tramo de 0 a 3 años.
- Acceso efectivo a una vivienda de alquiler social, y penalización fiscal importante a las viviendas vacías.
- Dignificar las prestaciones económicas relacionadas con la conciliación de la vida laboral, familiar y personal.

Al igual que en política presupuestaria, es necesario tomar decisiones unilaterales en políticas públicas, como por ejemplo en vivienda, fracking, etc., priorizando los derechos económicos, sociales y medioambientales (si es el caso, no aceptando las resoluciones del Tribunal Constitucional).

### 4. Politica de empleo y formacion propia

- Capacidad de decisión sobre las políticas. Las políticas de empleo se deben decidir aquí.
- Políticas activas y políticas pasivas. Se requiere capacidad propia para llevar adelante todo lo que tiene que ver con las políticas activas y pasivas de empleo (las prestaciones por desempleo).
- Potenciación de los servicios públicos de empleo. La política de intermediación laboral debe realizarse mediante los Servicios Públicos de Empleo, abandonando el actual diseño de subvención y financiación de entidades privadas, que en muchas ocasiones no dan un servicio adecuado ni garantizan la igualdad de oportunidades.
- Cambio de orientación radical de los programas de las políticas de empleo.
- Se debe dotar a Lanbide de más medios humanos y estabilidad para poder dar una atención adecuada a las personas perceptoras de prestaciones económicas y desarrollar de manera personalizada las políticas de orientación e intermediación laboral.
- Respecto a la formación para el empleo:
  - Poner el modelo de formación para el empleo al servicio de las necesidades de la economía productiva y de los trabajadores y trabajadoras.
  - Primar el papel de los centros de formación profesional e impedir que se asignen fondos de los planes formativos a sindicatos y patronal.
- Aplicar las medidas propuestas por ELA en materia de política industrial, para aumentar el empleo de calidad en este sector e impulsar una transformación ecológica y social del actual modelo productivo.
- Aumentar notablemente los medios destinados a perseguir el fraude en la contratación.
- Acabar con las licitaciones a la baja, que provocan la extensión de la precariedad laboral.

### 5. Negociación colectiva y diálogo social

Compromiso de respetar las reglas democráticas básicas en la negociación colectiva: renuncia a impulsar los acuerdos en minoría.

Dar cauces reales de participación sindical a la hora de fijar las políticas públicas:

- En el ámbito formal, y a todos los efectos, se debe respetar expresamente el grado de representatividad de cada organización sindical. Las decisiones se deben tomar por mayoría de cada parte.
- No funcionamiento de órganos en los que la mayoría de una parte no participe.
- Establecer un sistema de acreditación de la representación patronal.

### 6. Profundización democrática y transparencia

Utilización de los referéndums como método de participación a la hora de determinar las decisiones políticas, en especial en las materias más importantes y que más debate viene suscitando.

Hacer públicas las agendas de los responsables políticos.

Garantizar el acceso a los documentos oficiales, tanto al público en general como a las organizaciones sociales.

Extensión del régimen de incompatibilidades.

### 7. Condiciones de trabajo en el sector público y apoyo al empleo público

Restituir el derecho a la negociación colectiva en los ámbitos de responsabilidad del Gobierno. Respetar los acuerdos alcanzados en la negociación colectiva. Renuncia al decreto (imposición unilateral de las condiciones de trabajo).

Dar marcha atrás en todos los recortes aprobados las últimas legislaturas. Recuperar el empleo público destruido en los últimos años y contemplar un objetivo que lo equipare a la media existente en los países de la OCDE (la CAPV tiene un nivel de empleo público del 14% de la población activa, mientras que en la OCDE es del 21%). Reducir la temporalidad existente hasta un máximo del 7%, frente al 35% actual.

Aplicar los puntos recogidos en la ILP planteada por ELA, y avalada por más de 100.000 firmas, para regular la subcontratación pública.

### 8. Sistema financiero

Defensa de un sistema financiero público vasco: dar marcha atrás en la conversión de las Cajas en banco, así como en Fundaciones Bancarias; exigencia de que ni una sola acción de Kutxabank vaya al capital privado.

Apertura de un debate social sobre el papel de las entidades financieras.

### 9. Estatus político

ELA considera necesario realizar un diagnóstico exhaustivo sobre la situación real del autogobierno y sobre los efectos jurídicos, políticos y sociales que tiene la dinámica recentralizadora de las últimas décadas.

ELA reclama la necesidad de la participación social y, más concretamente, del movimiento sindical, en la realización de dicho diagnóstico. Cualquier modificación del actual estatus solo vendrá de la activación social.

La defensa del autogobierno, en nuestra opinión, debe abandonar la referencia a la bilateralidad y dar prioridad a la confrontación democrática con el Estado, para ganar la soberanía nacional y social de nuestro pueblo.

# Mendia, PSE y el euskara




Ante el ejercicio de ignorancia, mentira o mala fe, o mezcla de la tres, cometido por Idoia Mendia respecto a las políticas públicas sobre euskera hemos sentido la necesidad de pronunciarnos. Hemos querido responder, no para reforzar el enfado de la comunidad vascoparlante, sino para hacer ver otra realidad a las personas que no conocen el euskera en nuestra comunidad.

Habla Idoia Mendia de la libertad para utilizar el idioma de elección de cada cual. Se olvida de un pequeño detalle: solamente las personas bilingües ofrecemos a quienes quieran comunicarse con nosotras la libertad de elegir el idioma. Quienes únicamente hablan un idioma se lo imponen a quienes quisieran comunicarse en el otro.

**La comunidad vascoparlante es discriminada diariamente y masivamente en este país con dos idiomas oficiales**, con frecuencia no podemos comprar el pan o recibir asistencia médica en nuestro idioma de elección. Defendemos también la igualdad, queremos, al igual que las personas que han elegido vivir en castellano, poder vivir en euskera. Justo es reconocer la situación de todas las personas que querrían saber euskera y no lo han podido aprender, pero la responsabilidad de Idoia Mendia debería ser la de solventar esas dificultades para asegurar en un tiempo que toda la sociedad ha podido aprender euskera, al menos con un nivel que permita la comunicación pasiva.

**Pero, además, Idoia Mendia miente.** Dibuja una sociedad en la que todo el empleo público es para personas vascoparlantes y se atreve a hablar de Osakidetza. En Osakidetza solamente el 29% de la plantilla (por debajo del 35% de la población que se declara bilingüe) ha demostrado los conocimientos de euskera definidos como objetivo. ¡Y dice Mendia que los requisitos de conocimiento son excesivos! En Osakidetza se exige (en las plazas en las que es requisito, unas 9500 de una plantilla de 33.000) un conocimiento equivalente al B-2 del Marco Europeo Común, es decir, el nivel que certifica una capacidad de "relacionarse con hablantes nativos con suficiente fluidez y naturalidad". Nivel que está por debajo del EGA que tanto les molesta. Por cierto, para poder trabajar en Osakidetza, cualquier persona que provenga de un país en el que el español no sea oficial debe demostrar un nivel de castellano superior al equivalente del EGA ¿Les están discriminando también?

**Habla también de discriminación en el acceso al empleo público por la exigencia del euskera.** Podemos recordarle los datos escandalosos de Osakidetza, que usted debería conocer.

Por otra parte, si a una persona le apeteciera trabajar en Osakidetza como personal médico, aunque no haya aprendido Medicina ¿Le estaría discriminando Osakidetza?

**El empleo público es para dar servicio a la ciudadanía.** En un país con dos idiomas oficiales, lo natural es que las personas que vayan a trabajar en el ámbito público, además de tener los conocimientos técnicos requeridos por el puesto de trabajo, conozcan los dos idiomas oficiales en los que deberá dar el servicio. Es más, las personas que trabajan en la administración deben tener derecho a trabajar en el idioma de su elección, pero si las compañeras de trabajo no conocen el euskera, inevitablemente deberán trabajar en castellano. ¿Dónde quedan sus derechos?

Es cierto que hay personas que no pueden trabajar en el ámbito público porque no conocen el euskera. Corresponsable de esa situación es Idoia Mendia. ¿Cómo es posible que a partir de que finalizase la dictadura fascista, nuestro sistema educativo no garantice que, sin excepción, quien finaliza los estudios básicos conozca suficientemente los dos idiomas oficiales? El PSE-PSOE ha ostentado la dirección de la Consejería de Educación en tres legislaturas, alguna responsabilidad tendrá en ello.

**Pero la señora Mendia es responsable en primera persona.** La anterior legislatura fue la Consejera responsable de la Función Pública. En ese tiempo no tomó ninguna medida para favorecer que las personas que no conocen el euskera puedan aprenderlo. En este país todo el esfuerzo para aprender el euskera recae sobre personas individuales. El aprendizaje del euskera no es gratuito y tampoco se favorece la conciliación de la vida profesional con el aprendizaje del euskera. Muchas veces ni siquiera en el ámbito público. En esa Osakidetza que tanto preocupa a Idoia Mendia, al personal eventual no se le dan facilidades para aprender euskera, ¡y es el 35% de la plantilla de Osakidetza!

**Queremos una sociedad en la que una persona castellanoparlante pueda vivir en castellano si quiere,** pero exigimos a los poderes públicos ese mismo derecho para las personas vascohablantes también, derecho que hoy por hoy no se respeta.

Los poderes públicos, en un proceso con tiempos ciertos, deberían asegurar un conocimiento de los dos idiomas oficiales, que permita, al menos, que cada cual se comunique en el idioma que elija.

**Discursos como el de Idoia Mendia buscan el rechazo** de las personas que no conocen el euskera hacia este idioma. Si quiere aportar en positivo, que haga propuestas que permitan a toda la población conocer ambos idiomas para que cada cual elija el idioma que quiera.

El castellano se impone legalmente y en la práctica diaria, sin embargo, la Secretaria General del PSE-PSOE considera que la política lingüística sobre euskera discrimina a las personas castellanoparlantes.

**Resulta llamativo que una persona llamada socialista hable en términos de mercado sobre la libertad de elección.** Debería saber la señora Mendia, que en esta sociedad de mercado se tiende a promover la desigualdad, fortalecer al fuerte y debilitar al débil. Lo mismo ocurre en relación a las comunidades lingüísticas. La actual situación de minorización del euskera y discriminación de las personas euskaldunes es resultado de las políticas lingüísticas discriminatorias y uniformizadoras de los sucesivos gobiernos españoles (y franceses). La lucha contra la desigualdad exige una política pública que asegure los derechos de toda la sociedad, también respecto al idioma. Aunque quizá la señora Mendia tenga un problema con ese principio básico de socialdemocracia, o quizá no todas las letras de las siglas de su partido tengan el mismo peso.

**Por otra parte, creemos que los actuales responsables de la política lingüística del Gobierno vasco** deberían repensar su política de "amplio consenso". El consenso en política lingüística debe apoyarse en el respeto de los derechos lingüísticos de euskaldunes y castellanohablantes. Nunca en la supremacía de un colectivo sobre el otro.

Deberían huir de las trampas que recurrentemente les tienden partidos como el de la señora Mendia, en el sentido de diluir progresivamente las medidas encaminadas a restituir sus derechos a la discriminada y maltratada comunidad euskaldun.

Los partidos uniformizadores lo tienen claro. La misma Idoia Mendia lo expresó claramente hace unos meses: "el euskera ya está normalizado". Es decir, que "hasta aquí" han llegado.

¿Se les va a reconocer el derecho de veto para condicionar la política lingüística en la CAPV?

El Gobierno Vasco y el PNV deberían responder claramente a esta cuestión.

**Pello Igeregi Santamaría**, responsable en Osakidetza, y **Leire Txakartegi Iramategi**, responsable de euskera y miembro del Comité Ejecutivo.

# NAZIOARTEKO III. JARDUNALDI EKO-SOZIALISTAK EGINGO DIRA IRAILAREN 23TIK 25ERA BILBON



Hainbat sindikatu –tartean ELA–, alderdi politiko eta gizarte eragilek antolatuta irailaren 23tik 25era Nazioarteko III. Jardunaldi Eko-sozialistak egingo dira Bilbon. *Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala: erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz* lelopean nazioarteko hainbat adituk egungo abagunearen aurrean dituzten proposamen eta alternatibak landuko dituzte.

ELA ere presente egongo da jardunaldi hauetan. Irailaren 25ean, igandea, Adolfo Muñoz idazkari nagusiak *Sindikalismoa trantsizio ekosozialistaren aurrean* izenburua daraman eztabaidan parte hartuko du.

Informazio gehiago:
**http://alterecosoc.org/**

*Bilbao acogerá del 23 al 25 de septiembre la III edición de los Encuentros Ecosocialistas Internacionales; el objetivo es construir alternativas a los desafíos ecosociales que tenemos por delante*

astekaria

## TMB Arraizeko langileek manifestazioa egin zuten irailaren 14an, apirilaren 4an greba hasi zutenetik Bizkaiko Foru Aldundiak konponbidearen alde ez duela ezer egin salatzeko

# "DIPUTAZIOAK BERE ARDURA SAIHESTU NAHI DU"




TMB Arraiz Aldi-Baterako Enpresa Batasuneko langileek greba mugagabean daramate apirilaren 4tik. Bizi duten prekarietatearen kontrako greba da. Urteak daramatzate miseriazko soldatak, lanaldi amaigabeak, behin-behinekotasuna edo lan osasun eta segurtasunean larriak salatzen. Apirilaren 4an, aski dela ebatzita, greba mugagabeari ekin zioten.

TMB Arraiz enpresak Bizkaiko hiri-hondakinen zati bat birziklatzea du eginkizun. Azpikontratatutako zerbitzu publiko baten inguruan mintzo gara; Sacyr eta Pavisa (Valoriza) dira zerbitzua kudeatzeaz arduratzen diren enpresak. Aurki urte erdia beteko dute greban. Hala ere, langileek salatzen dutenez, Bizkaiko Foru Aldundiak zein enpresek ez dute ezer egin orain arte gatazkari amaiera bat emateko. Horregatik irailaren 14an Bilboko kale nagusiak zeharkatu zituen manifestazio bat egin zuten. Protesta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzaren aurrean amaitu zuen, gatazka osoan zehar erakutsi duen jarrera salatzeko.

Langileen izenean Kike Alvarezek hartu zuen hitza lehenik. ELAko delegatu honek euren borrokaren zergatia azaldu zuen. "Beharrezkoa den denbora guztia borrokatzen jarraituko dugu prekarietatea gure eguneroko ogia izan ez dadin. Nazkatuta gaude ditugun lan-baldintzekin, eta ez dugu hitzarmen duin bat lortu arte etsiko".

Alvarezek salatu zuenez Bizkaiko Foru Aldundiak ez du orain arte langileen ordezkariekin biltzeko inolako borondaterik agertu. "Gatazka honen arduradun gorenek izen abizenak dituzte: Unai Rementaria ahaldun nagusia eta Elena Unzueta, Ingurumen diputatua. Hala ere, greban hasi ginenetik ez dira Enpresa Batzordearekin biltzeko gai izan".

Negoziazio kolektiboko arduradun Joseba Villarrealek ere hitza hartu zuen ekitaldian. Gogor salatu zuen Foru Aldundia gatazka honetan izaten ari den jarrera. "Posible da gaur egun zerbitzu publiko bat azpikontratatzea, legearen barruan dago. Are eta gehiago, posible da zerbitzu publiko bat lagunen esku uztea langileen prekaritatearen eskutik dirua egin dezaten. Baina inoiz ezin dena egin da zerbitzu publiko baten gaineko erantzukizuna azpikontratatzea. TMBn gertatzen denaren erantzukizuna Bizkaiko Foru Aldundiarena da, zerbitzu horren kudeaketaz arduratzen den enpresa edozein delarik ere".

> *"Es posible subcontratar un servicio público, está dentro de la ley. Es más, es posible dejar un servicio público en manos de amigos para que hagan dinero a cuenta de la precariedad de los y las trabajadoras. Pero lo que no se puede hacer nunca es subcontratar la responsabilidad de un servicio público subcontratado. Y la responsabilidad de lo que pasa en TMB Arraiz es de la Diputación Foral de Bizkaia, sea quien sea la empresa encargada de gestionar ese servicio".*

## LABURREAN / BREVES

### • Bost greba egun Lanbiden

ELA eta LAB sindikatuek bost greba egun deitu dituzte Lanbiden: irailak 21 eta 22 eta urriak 3, 4 eta 5. ELAk Lanbiden duen arduradun Miren Zubizarretak azpimarratzen duenez, Lanbidek 190 orientatzaile kaleratu eta ordezkatu nahi ditu. "Lanbideren bost urteko ibilbidean lan-orientazioa egin izan duen kolektibo ia osoaz mintzo gera. Erabaki honek berez aski larri zebilen enplegu-zerbitzua hankaz gora jar dezake. Eusko Jaurlaritzari honakoa eskatzen diogu: langileen lan-baldintzak errespeta ditzala eta euskal enplegu zerbitzu kalitatezkoa eta egonkorra ziurtatzeko behar diren erabakiak har ditzala. Bestela, orain arte egin dugun bezala, aurrean izango gaitu".

### • Errenteriako etxez-etxeko laguntza zerbitzua greban

Errenteriako etxez-etxeko laguntzako langileek greba egin zuten irailaren 14tik 16ra bitartean. Deialdiaren helburua sufritzen dituzten lan-baldintzak salatzea eta euren egoera duinduko duen enpresa hitzarmen bat da. ELAk sektorean duen arduradun Xabier Etxanizek aipatzen duenez, "oinarrizko zerbitzu publiko bat eskaintzen dugu. Baina gu ez gara udal-langileak. Arquisocial izeneko enpresa batentzako egiten dugu lan, udalak zerbitzu publiko hau azpikontratatzea erabaki zuelako. Honek ondorio larriak ditu guretzako, enpresaren helburu bakarra gure prekarietatearen truke poltsikoak betetzea baita".

Etxanizek azpimarratzen duenez, 2015eko urrian Udalak lan baldintzak hobetzeko konpromisoa hartu zuen, baina oraindik ez du bere hitza bete. "Gure baldintza kaskarren konponbide bakarra enpresa-hitzarmen bat sinatzea da. Horretarako, udalak diru partidak hobetuko zituela eta sinatutako baldintzak betetzeko beharrezkoak ziren klausulak hartuko zituela aipatu zion. Dena den, denak itxura ona zuela zirudienean, arazo tekniko-juridiko batzuk sortu direla esaten zaigu Udaletik, eta ezinezkoa izango zaiola diru hori ematea prorrogak irauten duen bitartean. Guk arazo horri irtenbidea eskaini diogu, eta hiru aldeen arteko mahai bat proposatu:Udala, enpresa eta langileen ordezkariak. Zoritxarrez Udalak enpresarekin bakarrik biltzea erabaki du. Beti kaltetuak gu izateaz nazkatuta gaude".

### • Huelga en el servicio de jardinería de Sondika y Zamudio

Las y los trabajadores de Enviser –empresa subcontratada por los Ayuntamientos de Sondika y Zamudio para el servicio de jardinería– comenzaron el 5 de septiembre una huelga indefinida. Las y los jardineros de Sondika y Zamudio exigen un convenio colectivo propio que dignifique sus condiciones de trabajo. Unas condiciones, las que recoge el convenio Estatal de Jardinería, que condena a estas personas a la precariedad.




**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207